

Herritarrek

2018ko urria

INFORMATZEN

Udalgintza informazioa 2015-2019

13. alea



www.berastegi.eus

HIRIGINTZA

1. Frontoia eraberritzeko lanak: Irailaren 5ean elkartu zen alkatea lanak aurrera eraman dituen enpresako ordezkariekin, egindako lanen errebasoa egin eta egiteko zeuden hobekuntza-lanak zehazteko. Besteak beste, pilotek ihes ez egiteko sarea izkinetaraino eramatea, markagailuko testua euskaraz jartzea, aldageletan dutxetako uraren

presioa jaistera, garbiketa-lanetarako ur-hartune berri bat jartzea eta komunetan ateetako genero-irudiak kentzea eta atea ixteko kisketak jartzea erabaki zen.



2. Yereginea eta Bista Eder, abiadura mantsotzeko proiektua: Urtea bukatu baino lehen lanak hasiko zituztela esan zigun Aldundiko errepideetako zuzendariak. Irailaren 7an jasotako erantzunaren arabera, lanak aurrera eramateko asmoz jarraitzen dute oraindik, aurrerapenik egin ez badute ere.

3. Mediku-etxe zaharra: Apirilaren 21 eta 27an herritarrekin egindako parte-hartze prozesuaren ondoren, azken herri-batzarrean aurreratu genizuen bezala, bi proiektu dauzkagu esku artean aukeratzeko.

Batetik, udal aterpetxe bat jartzekoa; beheko solairuan jangela, komuna, biltegia eta apartamentu egokitua eta goiko solairuan 28 lagunentzako lotarako lekua luketen 3 logela, komunak eta dutxak izango lituzkeena. Eta, bestetik, gimnasioak eta tailer-gelak jartzekoa; beheko solairuan sukaldea, masaje-gela eta tailerretarako eremua eta goikoan bi gimnasio eta komunak izango lituzkeena.

Aurreratu genizuen udazken aldera, bi proposamenen aurkezpen saio bat egin ondoren, bataren edo bestearen alde bozkatzeko aukera jarriko genuela. Egunak zehaztuta ditugu dagoeneko: aurkezpen saioa azaroaren 9an 19,00etan egingo dugu udaletxean eta proiektua aukeratzeko aldera bozka emateko epea azaroaren 19tik 23ra artekoa izango da. Bozka udal bulegoetan edo karreapeko buzoian entregatu beharko da.



Bozkatzaile bakoitzari bi txartel utziko dizkiogu postontzian: batean, izen-abizenak eta norbere errolda-zenbakia agertuko dira; eta, bestean, errolda-zenbakia eta A eta B aukerak, hobestutako proiektua bozkatzeko. Horrela, herritar bakoitzak bozka bakarra ematea ziurtatuko dugu eta bozka gehien lortzen dituen proiektuarekin egingo dugu aurrera datozen urteetan.

4. Hirigintza-lanak epe motzean: Bizilagunekin zuzendu beharrekoak zuzenduta, Mallorkina atariko espaloia egiteko lanei ekingo diegu aurki. Maiezkonea eta Erretoretxea artean eta Murgiondotik Igeraldera brea botatzeko aurrekontua ere eskatua dugu (24.800 euro + bez) eta Aitari Esker eta Mintxolotik Zubizabaletara falta den zatian hormigoia botatzeko asmoa ere badugu.



2018an ez bada, 2019an egin nahi genituzke lan horiek, ondoren aipatzera goazen beste hauekin batera, herritarren beste eskaera batzuei ere erantzunez: Jolazun-Iturbe arteko bidea, Aintzergan Larmondo aldeko bidea eta Ategiko etxe berrietatik errepide nagusira doazen eskailerak osatzekoa.

5. Eraikinen Ikuskaritza Teknikoa (ITE): Ekainaren 27ra arteko epea izan dute herritarrek beren jabetzakoak dituzten 50 urte baino gehiagoko eraikinei EIT edo ikuskaritza tekniko pasatzeko. Epe hori pasata, Eusko Jaurlaritzak EITen inguruan onartutako azken dekretuaren arabera, honelaxe geratu da araudia:

- Birgaitzea edo goitik beherako berrikuntza izan eta justifikatzen duten eraikinak salbuetsiak izango dira, ez dute EITa pasa beharrik izango.
- Hiri-lurretan (zona urbana) dauden eraikinek bai edo bai pasa beharko dute EITa.
- Landa-lurretan (zona rural) dauden eraikinak, agrarian alta emanda eta ondoan bide publikorik gabe badaude, salbuetsiak daude.
- Landa-lurretan, agrarian alta emanda egon edo ez egon, ondoan bide publikoa pasatzen bazaie, udalon esku geratzen da EITa pasarazi edo ez pasarazi.
- Eta landa-lurretan teiltupe berean bizitza bat baino gehiago egon eta bat agrarian alta eman gabe bada, eraikinari pasa egin beharko diote EITa bizilagun guztien artean.

Beraz, ondoan bide publikoa duten 50 urte baino gehiagoko eraikinei ikuskaritza tekniko pasarazi edo ez, udalon esku utzi du Eusko Jaurlaritzak, baita EIT-txostenen eta pasa duten eta ez duten eraikinen jarraipena egitea ere.




EITa pasa ez duten eraikinekin udalok aukeran daukaguna hauxe da: 1) pasatzera derrigortzea, 2) geuk pasa eta gero faktura etxe-jabeei bidaltzea, edo 3) hala ikusiz gero, eraikina hondamendi-egoeran deklaratu eta eraistea, bizitzeko lizentzia kenduta. Udal bakoitzak erabaki behar du bere eskumeneko etxe-jabeekin nola jokatu.

Guk, udal-gobernu bezala, herritar guztiei trataera bera ematea lehenetsi dugu. Legeak EITa pasata duten eraikinak babestu egiten ditu; okerren bat gertatuz gero (suteren bat, erorketaren bat...) eta bide publikoan kalterik eraginez gero, etxe-jabeen nahiz udalaren kontra dator legea, EITa ez pasatzeagatik edo ez pasarazteagatik. Hori horrela, EITa pasa ez duten eraikinen jabeekin biltzeko asmoa daukagu; ez hasiera batean, behintzat, ezertara derrigortzeko; baina bai egoera zertan den eta ez pasatzeak zer arrisku dituen argi uzteko.

UDAL FUNTZIONAMENDUA

6. Gaztelekua martxan: Momentuz 23 gaztetxok eman dute izena Gazteleku berriko bazkide izateko. Iraileko asteburuetan lokala ireki diegu, haiek haien erara antola eta presta dezaten txokoa. Hilean behin Harreman elkarteko hezitzaile eta psikologoaren bisita izango dute, larunbatez eta Gaztelekuan bertan, beren intereseko gaiak lantzeko. Urri amaierara arteko epea egongo da izen emateko; hortik aurrera, bazkideen artean erabakiko da gaztelekuaren funtzionamendua.



7. Aldaketa udal liburutegian: Arratsaldean udal liburutegiaren zaintzan eta kudeaketan lanean ari zen Lierni Gartzia arenak uko egin dio lanaldi erdiz zeukan liburuzain-postuari, eskaini dioten beste lanpostu bat onartzeko. Hala, esleipen-prozesuan izena eman zuten hautagaien zerrenda erabili dugu hutsik geratu zaigun lanpostua betetzeko, eta hala Arritxu Urangak lortu du lanpostua. Bera izango da aurrerantzean arratsaldeetako liburuzaina.

8. Ordenantza fiskalak: 2019 urteari begirako udal-zergak eta tasak arautuko dituzten ordenantzak zehazteko garaia ere iritsi zaigu. Azken urteotan erabilitako irizpide berari jarraituz, Kontsumorako Prezioen Indizeak (KPIk) abuztuan markatutako balioa hartuko dugu oinarri; %2,2a alegia. Gipuzkoako Foru Aldundiak errekaudatu eta udalari Foru Fon- doaren bidez iristen zaizkion zuzeneko 5 udal-zergak kalkulatzeko erabiltzen den formu- la matematikoari (Aldundiak zehaztutako balore katastrala gehi udalok markatutako tipoa bider KPIa) igoera horixe aplikatzea erabaki dugu.

Hauexek dira zuzeneko 5 zergak: 1) Landa izaerako ondasun higiezinaren gainekoa, 2) Hiri izaerako ondasun higiezinaren gainekoa, 3) Trakzio mekanikoko ibilgailuen gainekoa, 4) Hiri

izaerako lurren balioaren gehikuntzari dagokiona eta 5) Jarduera ekonomikoen gainekoa. Eraikuntza- eta instalazio-lanei ezartzen diegun %4ko zeharkako zerga bere horretan mantenduko dugu.

Bestalde, udalak eskainitako zerbitzuren bat erabiltzeagatik ordaintzen ditugun tasa gehienak ere berdin mantenduko ditugu: fotokopia- eta fax-zerbitzuarengatikoa, etxez etxeko zerbitzuarengatikoa, Ategiko etxebizitza babestuak erabiltzeagatikoa, etxebizitzaren lehen erabilera-baimenarengatikoa, postuak jartzeagatikoa, lur/ lurrazpi/ lurgain publikoa erabiltzeagatikoa, udal-jabetzako lurrak erabiltzeagatikoa, frontoiko eta futbol-zelaiko argiteria erabiltzeagatikoa, telekomunikazio-operadoreei kobratzen zaizkien tasak etab.

2019ari begira, bi udal tasatan erabaki dugu aldaketa edo egokitzapena egitea.

Batetik, zabor eta hiri-hondakinak kudeatzeagatik tasan. 66 euroan geneukan urteko tasa etxebizitzako; eta 2 euro, 68 eurora, igotzea erabaki dugu. Udal-gobernu honek hondakinen kudeaketan eskaintzen duen zerbitzua osoa dela iruditzen zaigu, eliz atariko garbigunearen eta hondakin arriskutsuen ontziaren erabilera, horren adibide. Herritarrek asko erabiltzen dituzte, zernahi uzteko, Tolosa edo Andoaingo garbiguneetara joaten ibili gabe. Hori positiboki baloratzen dugu, baina konturatzen gara herri-langileen lan-orduak ugaritu egiten zaizkigula ordainetan. Hargatik igoera.

Eta, bestetik, egurra ateratzeko baimen-eskaerei ezartzen zaien tasa ere egokitu egin dugu. Herritar batek pinuak daukan gaixotasuna dela-eta atera behar badu basoa, tasa ordaintzetik salbuestea erabaki dugu, hau da, tasa ez kobratzea, bestela ere etekin txikia izango duelakoan.

9. Gaztainondo Elkartearekin bilera: Joan den astean luzatu zioten bilera eskaera alkateari eta udaletxean bildu ziren. Jubilatu-elkarteak Gipuzkoa guztiko udaletara bidaltzen ari diren gutun bat ekarri zuten hainbat eskaerarekin, eta bide batez herrian herriko elkarte bezala zer sentipen eta beharrez dituzten azaldu ziguten. Oro har, gustura daude udal-gobernuarekin daukaten tratuarekin eta dauzkaten zerbitzuekin, eta eskaera zehatzak ere ekarri zituzten: herri-bueltan zehar banku batzuk jartzea, bidean zehar komunak bat egokitzea, ariketak egiteko aparatuak jartzea eta pare bat mahai gehiago elkarteko lokalera. Lokalaren erabilera bultzatzeko, jarduera ezberdinak jarri nahi ditugu martxan.

INGURUMENA eta ENERGIA

10. Ur zikinen saneamendu-sistema ezartzeko proiektua: URA Agentziak, Ur Kontsortzioak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak berriz biltzeko hitzordua noiz jarriko zain jarraitzen dugu. Itxura guztien arabera, urrian zehar dira biltzekoak eta URA Agentzia ari da dagoeneko



uraren euskal agentzia
agencia vasca del agua

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen eta Obra Hidraulikoen departamenduarekin eta Ur Kontsoltzioarekin adostu eta sinatu behar duen Zelaiko erreka interzeptorearen proiekturako hitzarmena prestatzen. Badirudi gure herriko ur zikinak bideratzeko azpiegituraren proiektua aurrerapausoak ematen ari dela. Modu ofizialean ez, baina jakin dugunez, URA Agentziak diru kopuru bat jasota du proiekturako. Ikusiko dugu zertan den.

11. Ur Kontsoltzioaren lanak epe motzean: 2018an egitekoak zituen lanetatik bi zulaketa-lan falta dira egiteko: Araitz berri etxetik Zubiarte etxera eta udaletxetik elizara. Horiek eginda, herria urez hornitzeko dauden bi eraztunak (Elduainaldekoa eta Izotzaldekoa) konektatuta geratuko dira. Obrak esleituta, bi asteren buruan hastea aurreikusi dute. Araitz berritik Zubiartera, espaloitik zehar egingo dira zulaketak; eta, lanak aprobetxatuta, losa-harriak kendu eta adokina jartzeko eskatu diogu Ur Kontsoltzioari. Ezezkoarekin erantzungo baligute, haiek hormigoia botata bere horretan utziko lukete, eta gurea izango litzateke adokina jartzeko lana. Irisgarritasun arloko laguntzen deialdian sar ditzakegu lan hauek.



12. Zelaiko erreka garbitzeko lanak: Asteotan herri-langileak erreka zabor eta hondakinak ateratzen eta pilatu, zabaldu eta berdinduta uzten aritu dira, lurjabeekin hitz egin eta hartarako baimenak eskatu eta gero. Errekara doazen zenbait kainu ere garbitu dituzte. Giro ona eta lehorra aprobetxatuta egin dira lanak, erreka inguruan kaltetuta zeuden lursailen mesedetan eta hurrengo euriteei aurrea hartzeko asmoz.

NEKAZARITZA, ABELTZAINITZA eta BASOGINTZA

13. Ipuliñoko larre komunalen proiektua: Bukatu ditu Xabier Saizarrek sailak garbitzeko lanak. Bestalde, ura hartzeko zenbait puntu antzemanda bazeuden ere, aditu bat ibilia da larreetan ur bila eta puntu batzuk markatu ditu. Orain sailak behar denaz ongarrantzea (karea, fosforoa, pixa...) tokatuko zaigu eta itxitura bidez ixtea, udaberri aldera ganadua sartzen hasteko. Urriaren 25ean Aldundiko Mendi Sailarekin elkartzekoak gara, hurrengo pausoak zehaztu eta diru-ekarpenak adosteko.



14. Herri bideetan txukunketa-lanak: Epe motzean eta urtea bukatu baino lehen diru-laguntza jasoa duten eta berrituko ditugun pistak Irumugarrieta eta Ulizar artekoa eta Añako bi bideak izango dira. Herritarrengandik idatziz jasoak ditugun bideak konpontzeko beste eskaerak ere kontuan dauzkagula adierazi nahi dizuegu. Legealdia amaitu baino lehen saiatuko gara betetzen. Lan batzuek eta besteek kostu eta aurrekontu ezberdina dute, eta zenbaitek teknikarien azterketa sakonago bat eskatzen dute, lanekin hasi aurretik. Hargatik luzatzen gara batzuetan nahi baino gehiago lanak aurrera eramaten.

GIZARTE ZERBITZUAK

15. Berdinbidean programa: Esana dugunez, Aldundiak gizon eta emakumeen arteko berdintasuna lortze aldera martxan duen programa honen barruan, hainbat proiektu dauzkagu martxan Harreman Elkartearekin elkarlanean.

Batetik, 5. puntuari aurreratu dugun bezala, Gaztelekuko gaztetxoekin haien intereseko gaiak lantzeko bi orduko 10 saio dauzkagu antolatuta, hilean behin, larunbatez, egiteko Gaztelekuan bertan begirale baten laguntzaz.

Bestetik, eskolako 4., 5. eta 6. mailako ikasleekin ikasturte honetan ere sexualitatearen inguruko Bizikidetzako saioak egingo ditugu (12 ordu, guztira) abenduaren 3, 4 eta 5ean.

Eta, bukatzeko, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako gurasoei zuzendutako Guraso Eskola ere martxan dugu udaletxean. Hilean behin gurasoen intereseko gaiak lantzeko ordu eta erdiko 9 saio dauzkagu aurreikusita eta egutegia zehaztua dago dagoeneko: lehen saioa urriaren 10ean egin zen; eta bigarrena, esaterako, azaroaren 14an izango da. Beasi Guraso Elkartearen arduratuko da gurasoei saioen egunak eta orduak gogorarazteaz.



16. Ategiko etxebizitza babestuak: 5 erabiltzailerentzako lekua daukagu bertan eta epe motzean erabiltzaile bakarrarekin geratuko garenez, etxebizitza babestuen barne-araudian egokitzapenak egitea erabaki dugu. Aurrerantzean ere hirugarren adineko herritarrek izango



dute lehentasuna bertan bizilekua lortzerako orduan; hala ere, kasuistika zabaldu eta behar bereziren batean aurki litezkeen beste herritar batzuentzat ere atea irekita uztea egoki ikusi dugu. Aldez aurretik, barne-araudia aldatu eta berridatzi beharko dugu, legearen aurrean babestuta egoteko.

MOTZEAN

17. Panel informatiboak: Esan genuen herrian zehar udalak nahiz herritarrek oharrak edo iragarpenak egiteko panelak eskatuak genituela. Iritsi ziren duela aste batzuk, baina gure ustekaberako giltza bidez ireki eta ixteko sarrailak dutenak bidali dizkigute. Sarrailak kendu eta irekitzeko eta ixteko eskuzko sistema jarri bezain laster kokatuko ditugu herrian zehar.

18. Autobabes plana Ategin: Ategiko eraikina Gaztainondo Elkartearen lokala, eguneko zentroa eta etxebizitza babestua biltzen zituen eraikin izatetik taberna eta jatetxea bere baitan hartzen dituen eraikin izatera pasa da; eta, jarduera berria gehituta, erabilera eta bete beharreko baldintzak ere aldatu egin zaizkio, legearen ikuspegitik. Hargatik, zenbait hobekuntza-lan egin beharko ditugu bertan datozen asteotan, sute edo bestelako larrialdi-egoeretakoa behar beste babestua egon dadin. Babesa Suzai eraikinen su-itzaltzeko sistemetan aditua den enpresak dagoeneko eginak ditu berak egin beharreko lanak; orain pladur-jartze, arotz- eta pintaketa-lan batzuk egitea faltako zaigu. Lanek guztira 6.300 euroko aurrekontua izango dute.

19. Zaborra herriko kaleetan: Ostiral arratsaldeetan eta pintxo-pote egunetako iluntzeetan maiz errepikatzen den irudia dugu nonahi zaborra sakabanatuta ikustearena, batez ere, plazan, eskola atarian eta parke inguruan. Ohartu gara arazoa errepikatu egiten dela, eta ez dira gutxi horren berri eman nahi izan diguten herritarrak ere. Horrenbestez, herritar guztioi hartaz kontzientzia hartzeko eta berriz gerta ez dadin neurriak hartzeko eskatu nahi dizuegu, beste era bateko neurriak hartzen hasi aurretik.

KULTURA eta KIROLA

20. Festen balantzea: Balantze ona egin du udal gobernuak aurtengo Salontzoen inguruan. Abuztuaren 8tik 12ra ondo pasatzeko aukera ugari izan dugu, eguraldia lagun, musika, dantza, herri-kirolak, pilotariak, bertsolariak, herri-afaria, jolasak eta abar tartean. 44.186,66 euro gastatu dira Salontzoak antolatzen eta Elduako Ama Birjin jaietan 1.946,28 euro.

21. Gazte eta helduei zuzendutako ikastaroak: Urriaren 1etik martxan ditugu udal-gobernuak gazte eta helduentzat antolatutako ikasturte osoko ikastaroak. Eskaintza egin eta gero, hauexek gutxieneko parte-hartzaile kopurura iritsi, taldea osatu eta aurrera atera diren ikastaroak: zumba-fitness, pilates, mantenimendu-gimnasia, euskara, jaskintza, dantza (DBHtik aurrera), txistua (DBHtik aurrera) eta trikitixa (DBHtik aurrera). Aurrera atera ez direnak, aldiz, ingelesa, bertsolaritza, zumba, pala neskentzat eta yoga (zalantzan oraindik).

22. Negutrail mendi-lasterketaren II. edizioa: Hasia da antolakuntza-taldea 2019ko edizioa prestatzen, udal-gobernuaren bitartekaritzarekin. Irailaren 17an egin zen lehen bilera eta eguna zehaztua dago dagoeneko: otsailaren 3an, igandea, izango da edizio berria.

Lehenengo urtean zehaztutako ibilbidearen amaieran zenbait aldaketa egitea erabaki da, hormigoigaineko korrikaldiak saihesteko; gehieneko parte-hartzaile kopurua 250etik 300era igotzeko aukera ere aztergai izan dute antolatzaileek, baita korrikalariak txiparekin irtetekoa ere.



23. Herri-bizitza diru-laguntzak: Gipuzkoako Foru Aldundiak ustekabeen deitu duen laguntza-lerroa dugu. 2.500 biztanletik beherako udalerrietako udalek eta elkarte eta eragileek egin ditzakete eskaerak, beti ere kultur arloko ekitaldi, emanaldi eta saioak finantzatzeko bada. 150.000 euroko partida prestatu du Aldundiak eta urriaren 15era arteko epea izan da eskaerak aurkezteko. Gehienez 3.000 euro emango zaizkio onartua den eskatzaile bakoitzari. Gure udal-gobernuak egina du bere eskaera eta herrian kultur arloko emanaldiak antolatzen dabilzan elkarteei ere emana diegu diru-laguntza deialdiaren berri.

24. Kultur Astea ate joka: Ohi dugunez, urriaren 25, 26, 27 eta 28ko asteburuan eta azaroaren 1, 2, 3 eta 4koan ospatuko dugu aurtengo Kultur Astea. Egitaraua itxuratua dugu



dagoeneko, laster emango dugu argitara, eta ez da non aukeratua faltako: hitzaldiak, erakusketak, ikus-entzunezkoak, jolasak, pintxo-potea, musika eta kantua, magia, ipuin-kontaldiak, bertsoa eta pilota nahasian, antzerkia etab. Urterokoak ditugun lehiaketak ere martxan dauzkagu: argazki rally-a, mus-txapelketa, gazta eta arrozene lehiaketak eta, nola ez, azken egunean Azoka.

EUSKARALDIA
11 EGUN EUSKARAZ
2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra

2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra,
Ahobizi edo Belarriprest ikurra soinean
eraman, eta hizkuntza ohiturak aldatzeko
ariketa egingo dugu!



Ulertzen duenari euskaraz egiten diot, hark erdaraz erantzun arren. Ezezagunei lehen hitza euskaraz egiten diet.



Egidazu euskaraz, nik ulertzen dut eta. Euskaraz edo erdaraz erantzungo dizut, baina zuk niri euskaraz egitea nahi dut.

Eta zu, **belarriprest**  edo **ahobizi**  izango zara?

Aukeratu zure rola eta eman izena irailaren 20tik aurrera
Izen-ematea euskaraldia.eus-en edo udaletxean